



Minako idazkia bide berri trazitako  
2016 EKA JUN 09  
Pase el presente escrito al Negociado de  
..... para su trámite  
2016 EKA JUN 09  
LASARTE-ORIA  
IDAZKARI OROKORRAK

## AMIANTOA DUTEN ERAIKINEN MAPA EDO ERROLDA BAT EGITEKO ETA HORRI DAGOKIONEZ HARTU BEHARREKO BESTE ZENBAIT NEURRIRI BURUZ LASARTE-ORIAKO EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA

Agente bereziki arriskutsua da amiantoa, gaixotasun larriak eragin eta lan-egoera ugaritan agertzen dena. Ildo horretan, abszeto, uralita edo fibrozementu izenez ere ezaguna den amiantoari buruz dakiguna –eta ez dakiguna ere bai– oso kezkarria da. Langile asko amiantoaren esposiziopean daude beren lanean. Mantentze- eta deskontaminazio-arloetan gertatzen da hori batez ere, baina beste zenbait langile ere eraginpean egon daitezke (teilatu-emaileak, elektrikariak, berokuntza-instalatzailleak, antenistak, iturginak...).

Indarrean dagoen araudiak enpresari ezartzen dio jada amianto-hautsaren edo amiantoa daukaten materialen esposiziopean dauden, edo egon daitezkeen, langileei prestakuntza egokia eskaini beharra.

Arrisku horren barruan daude, halaber, bizitegi-eraikinak eta eraikin horietan bizi direnak. Izan ere, 1999/77/EE zuzentarauak dioenez, "oraindik ez da gutxieneko esposizio-mailarik ezarri amianto krisolitoak maila horretatik behera arrisku kantzerigenoak eragiten ez dituela ziurtatzeko" eta "giza osasuna babesteko modu eraginkor bat amianto krisolitozko zuntzak eta zuntz horiek biltzen dituzten produktuak debekatzea da".

Esposizio-mailei buruzko azken ikerketa zientifikoek, latentzialdiek eta gaixotasunen garapenak zehazten dutenez, esposizio-dosi oso txikiak, latentzialdi luze batekin uztartuta, amiantoarekin lotutako hainbat gaixotasun eragiten dituzte. Horrenbestez, otsailaren 15ean onartutako Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen Irizpenak dioenez, "amiantorako esposizioa mehatxua da biztanleriarentzat oro har".

Lantalde horrek ezartzen duenez, "erabilitako amianto guztia eta amiantoa daukaten produktu guztiak erabat desagerrarazteak lehentasunezko helburua behar du izan".

Gaur egun egoera txarrean dagoen edo bere balio-bizitza amaitu duen amiantoa (kalteak baditu, filtrazioekin arazoak baditu, eta abar) kentzera ere behartzen du legeriak.

Ildo horretan, zenbait neurri ezarri behar dira gure udalerrian amiantoari buruz informatu, prestatu eta gure herrian daukagun amiantoa desagerrarazteko, pertsona guztientzat seguruagoa eta osasungarriagoa izango den hiria egiten lagunduz.

Hori dela-eta, Lasarte-Oriako EH BILDUREN udal-taldeak honako MOZIO hau aurkezten du:

1.- Lasarte-Oriako Udaleko osoko bilkurak udal-gobernuari eskatzen dio gure herrian amiantoa daukaten eraikin edo higiezinaren errola edo mapa bat egin dezala.

2.- Lasarte-Oriako Udaleko osoko bilkurak gobernuari eskatzen dio udal-langileentzako ezar ditzala amiantoak osasunerako dakartzen arrisku edo afekzioei buruzko informazio-eta prestakuntza-neurriak, beren jardun profesionalean amiantoa duten eraikin edo instalazioei aurre egin behar dieten langileentzat.

Era berean, udal-gobernuari eskatzen zaio neurri egokiak eta, lan-prebentzioko zerbitzuarekin batera, amiantoa daukaten elementu edo eraikinen esku-hartzean edo konponketan jarraitu beharreko protokolo-jardunak har ditzala.

3.- Gobernu-taldeari eskatzen zaio, halaber, martxan jarri eta planifika dezala udalaren eraikuntza edo lurzatietan dagoen amiantoa desagerrarazteko eta kentzeko programa bat, okerren dagoena edo bere balio-bizitza amaitzekotan dagoela igarri zaiona lehenetsiz.

4.- Udal-taldeari eskatzen zaio biztanleria sentsibilizatzeko programak abiarazteko aukera azter dezala, amiantoaren desagerraraztearen egokitasunari eta jarraitu beharreko jarraibideei buruzko programak, betiere.

Lasarte-Orian, 2016ko ekainaren 9an

EH Bildu Udal Taldearen izenean

